

## DBH1\_BIOLOGIAGEOLOGIA\_Programazio\_Laburpena

Irakaslea	Javier Sanmartín Sola, Leire Brusau Zabala, Maitane Pérez Ilzarbe Saragüeta eta Olaia Oneca Rodriguez	Maila	DBH 1	Ikasturtea	2021-22
-----------	---	-------	-------	------------	---------

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Biologia eta Geologia irakasgaia derrigorrezkoa da ikasturte honetan. Astean 3 ordu izaten dira. Aurten bost talde daude.

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1) Hizkuntza komunikazioa.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
3) Gaitasun digitala.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
4) Ikasten ikastea	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
6) Ekimena eta ekintzailtza.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

DBH: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/0>

### EDUKIAK

#### [DBH 1 CURRICULUMA](#)

1.- UNIBERTSOA ETA EGUZKI SISTEMA.

2.- LURRA ETA ILARGIA

3.- GEOSFERA

4.- ATMOSFERA

5.- HIDROSFERA

6.-BIOSFERA

7.- LANDAREAK

8.-. ANIMALIA ORNOGABEAK

9.- ANIMALIA ORNODUNAK

Ikastetxeko Berrikuntza Proiektuen arteko bat da **Iturrama Berdea**, ikasgai honetan honi lotutako jarduerak lantzen dira.

Koheziketa jarduerak ere egiten ditugu, adibidez, "Figuras Ocultas" pelikula ikusi eta lantzen dugu.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

### DBH 1 CURRICULUMA

## UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
10	1. Unibertsoa eta eguzki sistema	8	4. Atmosfera	10	7. Landareak
10	2.- Lurra eta ilargia	9	5. Hidrosfera	10	8. Animalia: Ornogabeak
10	3.- Geosfera	10	6. Biosfera	10	9. Animalia: Ornodunak

## METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Biologia eta Geologiako klaseetan ikaslea da protagonista. Ahal den heinean, saiakuntzak, ikerketa lanak, aurkezpenak... banaka eta taldeka egiten dituzte.

Oro har, jarduerak ikasgelan, laborategian eta baratzean egiten dira. Ikerketako proiektuak ere egiten dituzte.

Ikusentzunezko baliabideak erabiliko dira (gelako classrooma, bideoak, Power Point aurkezpenak) lagungarri gisa.

Gelako jardueretan praktika egiteko, eduki teoriko batzuk etxeko lanen bidez landuko dira. Oso inportantea da, beraz, etxeko lanak egitea.

Ikasle bakoitzak, testu liburuaz gain, "**klaseko koaderno**" izanen du zeinetan bere apunteak eta klaseko ariketa guztiak azalduko diren.

TESTU LIBURUA: **BIOLOGIA ETA GEOLOGIA DBH 1 IBAIZABAL 2015**

## EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA

### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK

#### TRESNAK

**Azterketak:** unitate bakoitzaren bukaeran (gehienetan). Ulermena, adierazpena, kontzeptuen bereganatzea.

**Koaderno**: garbitasuna, osotasuna, edukiera, egindakoa (etxekoa eta gelakoa)...

**Laborategia:** laborategian edo etxean egindako praktiken azalpenak, ondorioak, deskribapenak, etab.

**Errubrikak eta zerrendak** talde lana eta jarrera baloratzeko

#### KALIFIKAZIO SISTEMA

PROZEDURAK: % 25.

Lana: (%15): etxeko lana, klaseko lana eta ikaslearen hobekuntza(%10), koaderno (%5)

Jarrera: (%10) Ikasgaia gainditzeko ezinbestekoa izanen da gutxienez 5 bat ateratzea

EDUKIAK:

%75: aldizkako froga idatziak, banaka edo taldeka eginiko lanak.

Gutxienez atal bakoitzean 3 atera bat atera behar da batez bestekoa egiteko.

### ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Euskararen erabilera eta ortografia: adierazmena idazlanetan baloratzen da.

Jarduerak egin aurretik balioa zehaztuko da eta ikasleei jakinaraziko zaie. Azterketetan galdera bakoitzaren balioa zehaztuko da

**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.

- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

**Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

### **ERREKUPERAZIO SISTEMA**

Ebaluazio bakoitzaren ondoren, gainditu ez duten ikasleei, ebaluazio hori berreskuratzeko aukera emango zaie, gainditu ez gabeko gaien inguruko azterketa eginez. Azterketaz gain, zuzendu edo osatu beharko dituzte gainditu ez dituzten lan edo proiektu batzuk.

Ekaineko Ohiko ebaluazioa baino lehen, ikasleek aukera izanen dute, momentu horretan gainditu gabe dituzten ebaluazioak berreskuratzeko. Horretarako, suspenditutako ebaluazioetan gainditu ez dituzten gaien inguruko Nahikotasun azterketa gainditu beharko dute.

Nahikotasun probak gainditzeko ez dituen ikasleak, Ez-ohiko deialdian gainditzeko, lan bat egin beharko du, gainditu ez dituen ebaluazioen inguruan eta azterketako egunean aurkeztu. Lanak % 20a eta azterketak %80a balio dute. Azterketaren edukiak, Nahikotasunean, gainditu ez dituen ebaluazioenak izanen dira.

### **KANPOKO EBALUAZIOA**

Maila honetan ez dago kanpoko ebaluaziorik, baino datorren ikasturteko Ebaluazio Diagnostikoa prestatzeko antzeko jarduerak eginen ditugu.

**OHARRA:** Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni

dela zerbaitaldatzea, zilegi litzateke.